**BUSTURIALDEKO HIRU EUTetan PRODUKTU KIMIKOEN BILTEGIAK ETA SUTEEN AURKAKO BABESA LEGEZTATZEA ETA BI HORNIDURA BILTEGI BERRITZEKO PROIEKTUAK IDAZTEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN PLEGUAREN KARATULA. ESPEDIENTEAREN ZK.: 3238**

| | |
|---|---|
| **Harmonizatuko araubidearen menpe dagoen kontratua** | ☐BAI ☒EZ |
| **Espedientearen izapidea** | ☒Ohikoa, ☐Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐Aurreratua |
| **Mota** | ☒ Irekia<br>☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.)<br>☐ Ireki supersinplifikatua (SPKLren 159.6. art.) |

| A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA | |
|---|---|
| **1.- Botere adjudikatzailea:** | Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia/<br>Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa |
| **2.- Kontratazio-organoa:** | ☐ Zuzendaritza Batzordea<br>☐ Presidentea<br>☒ Gerentea |
| **3.- Kontratuaren arduraduna:** | Xabier Bikandi Markaida |
| **4.- Kontratazioko Zuzendariordetzako harremanetarako datuak:** | contratacion@consorciodeaguas.eus<br>Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono-zk.:94 4873100 |
| **5.- Kontratatzailearen profila:** | www.consorciodeaguas.eus<br>www.contratacion.euskadi.eus |

**B.- KONTRATUAREN XEDEA**

**1.- Kontratuaren xedea**: **BUSTURIALDEKO HIRU EUTetan PRODUKTU KIMIKOEN BILTEGIAK ETA SUTEEN AURKAKO BABESA LEGEZTATZEA ETA BI HORNIDURA-BILTEGI BERRITZEKO PROIEKTUAK IDAZTEKO ZERBITZUA**

**2.- Bete beharreko premiak:** Bermeo, Gernika eta Busturiako EUTetako produktu kimikoen biltegiak eraberritzeko eta legeztatzeko proiektuak idatzi behar dira, egungo ustiapen- eta legeztatze-beharretara egokitzeko. Indarrean dagoen araudia betetze aldera, suteen aurkako babes-sistemen proiektuak idaztea ere sartuko da. Magunas eta Okis biltegiak eraberritzeko proiektuak idatzi behar dira, iragazketa-sistemak eta baliabide uhertasunagatik baztertzeko mekanismoak izan ditzaten.

**3.-Lotetan banatzea:** ☒ Bai ☐ Ez

**Lotearen deskribapena eta zenbatekoa:**

**1. LOTEA:** BUSTURIALDEKO EUTak LEGEZTATZEA ----------------------- 87.000 € (BEZik gabe)
**2. LOTEA:** HORNIDURA-BILTEGIAK ERABERRITZEA-------------------42.000 € (BEZik gabe)

Parte hartzeko/adjudikatzeko muga: EZ

**4.- CPV:**
CPV kodea: 71242000-6
Deskribapena: Proiektuak eta diseinuak egitea, aurrekontuak

**5.-Aldagaiak edo alternatibak onartzea:**
☐ BAI

## B.- KONTRATUAREN XEDEA

☒ EZ
Onartzeko baldintzak eta aldatu edo aukeratu daitezkeen elementuak:

**6.-Izaera juridikoa**

☒ Administratiboa ☐ Pribatua

## C.-KONTRATUAREN PREZIOA

| | |
|---|---|
| **1.-Lizitazio-aurrekontua** (BEZik gabe) | **EHUN ETA HOGEITA BEDERATZI MILA (129.000,00 €) EURO** |

**2.-Kontratuaren balio zenbatetsia:** EHUN ETA HOGEITA BEDERATZI MILA (129.000,00 €) EURO

Loteak:

☒ BAI

☐ EZ

Loteen kalkulatutako balioa:

**1. LOTEA:** BUSTURIALDEKO EUTak LEGEZTATZEA ----------------------- 87.000 € (BEZik gabe)

**2. LOTEA:** HORNIDURA-BILTEGIAK ERABERRITZEA-------------------42.000 € (BEZik gabe)

**3.-Prezioa zehazteko sistema**:

☐ Oroharreko prezioa

☒ Aleko prezioak

**4.-Urteko kopuruak eta aurrekontu-kontsignazioa:**

Kontratuaren urteko aurrekontuak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa hauek dira:

2026. urtea: 601.12.169.32 partida ----------------------- 129.000,00 € BEZik gabe

**5.-Prezioak berrikustea:**

☐ BAI

☒ EZ

**6.-Kanpoko funtsekin finantzatzea:**

☐ BAI ☒EZ

**7.-Ordaintzeko modua:** Arrunta. Hileko ziurtagiriak.

**8.-Ordainketak kontura**: Ez da aplikatu behar

## D.-KONTRATUAREN EPEA

**1.-Iraupen osoa: ZORTZI (8) HILABETE**

**2.-Epe partzialak.**

☒ BAI ☐ EZ

Zerbitzua modu eraginkorrean ematen dela ziurtatzeko, informazioa ezagutu eta eguneratu behar da, eta informazioa dokumentatu, erregistratu eta artxibatu egin behar da. Dokumentuak emateko, hiru mugarri partzial ezarri dira (kontratua sinatu zen egunetik zenbatzen hasita), obrak kontrolatzeko eta zigorrak ezartzeko:

1 - Kontratua hasi aurreko hiru hilabeteen aurretiko azterketak entregatzea.

## D.-KONTRATUAREN EPEA

2 - Kontratua hasi eta sei hilabetera egikaritze-proiektua entregatzea.
3 - Aldaketa-fasea, organo eskudunak behin betiko onetsi arte.

Kontratua ez da amaituko eskatutako dokumentu guztiak entregatu eta kontratuaren arduradunak onesten dituen arte.

**3.-Luzapena**

☐ BAI ☒ EZ

**4.-Berme-epea:** URTE (1) BAT

**5.-Kontratua betetzeko tokia:** Enpresa adjudikaziodunaren instalazioak eta BBUPrenak

**6.-Partzialki jaso daitezkeen lanak** ☐ BAI ☒ EZ.

## E.- BERMEAK

Behin betiko bermea: % 5 Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria: Zenbatekoa:

## F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena: amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokio, eta kontratuaren urteko lizitazio-tasa halako bat izan beharko da gutxienez. (1. lotea: 87.000 € / 2. lotea: 42.000 €)

## G.-KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Lizitatzaileek nahitaez egiaztatu beharko dute beren kaudimena, eta hala egin ezean prozesutik kanporatuak izango dira. Horretarako, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Kontratuaren xedearen antzeko zerbitzuen azken bost urteetako hornidura-zerrenda. Organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira egindako hornidurak hartzailea sektore publikoko erakundea denean; hartzailea erosle pribatua denean, berriz, berak emandako ziurtagiri baten bidez, eta, ziurtagirik ez badago, enpresaburuaren aitorpen baten bidez. Egiaztatutako lanen edo horniduren eta kontratuaren objektua osatzen dutenen arteko egokitasuna zehazte aldera, azken horri aplika dakiokeen sailkapena dagoenean, batzuk eta besteak zein sailkapen-taldetakoak eta azpitaldekoak diren hartuko da kontuan, eta gainerako kasuetan, bakoitzaren CPV kodeen lehen bi zifrak bat datozela.

    - Baldintza hau bete beharko da: Gutxieneko baldintza izango da egikaritze handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren balio zenbatetsiaren % 70 edo handiagoa izatea, edo urteko batez bestekoa, hori kontratuaren balio zenbatetsia baino txikiagoa bada.

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknikoa:

Kaudimenean eskatzen den esperientzia ez da kontuan hartuko kasu horietarako. Bai, ordea, gainerako eskakizunak.

## ENPRESA-SAILKAPENA

**ENPRESA-SAILKAPENA** ☐ Bai, hautazkoa ☒ Ez

| H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA |
|---|
| 1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena. |
| 2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen araberako irizpideen dokumentazioa. |
| 3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentazioa. |

**BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA**

Lizitatzaileek kontratua egikaritzeko proposamen tekniko bat aurkeztu beharko dute, adierazitako puntu guztien deskribapen zehatza barne, jarraian adieraziko den ordenan.

Memoria teknikoa eta gauzatze-metodologia

1. Egingo diren lanen irismena.

   - Egin beharreko gutxieneko lanen deskribapena, PTPAn jasotako deskribapenari balio erantsia ematen diona (PTPA kopiatze hutsak ez du inolako baliorik eransten).
   - Instalazioen inguruko ezagutza-maila

2. Lanak egikaritzeko proposatutako programazioa eta metodologia

   - Lanak garatzeko jarraitu beharreko metodologia, kontratua gauzatzeko faseak eta aurkeztutako lan-programarekiko koherentzia zehaztuta.

3. Kontrol-sistemak

   - Kontratu honetarako aurreikusitako laneko arriskuen prebentzioko eta ingurumeneko kontrol-sistemak. Lan eta Ingurumen Arriskuen Prebentzio Planaren aurrerapen espezifiko eta ez-orokor bat sartzea.
   - Kontratu honetarako aurreikusitako kalitate-kontroleko sistema. Lanak gauzatzeko proposatutako autokontrol-plana sartzea.

Kontraturako jarritako bitarteko teknikoak

4. Kontratua egikaritzeko antolamendu-egitura eta lantaldea.

   - Kontratua egikaritzeko antolamendu-egitura eta lantaldea: Kontratua egiteko aurreikusitako organigrama aurkeztuko da. Bertan, kontuan hartutako pertsona bakoitza definituko da, esleitutako funtzioak (espezialitate teknikoa) azalduko dira, antzeko lanetan izandako esperientzia zehaztuko da, zeregin nagusiak eta aurreikusitako arduraldia adieraziko dira, eta proposatutako taldearen egokitasuna justifikatuko da, bai esperientzia pertsonalagatik, bai talde gisa dituen ezaugarriengatik.

5. Lanak egikaritzeko esleitutako baliabide materialak.

   - Aurreikuspenen arabera erabiliko diren ekipoak eta instalazioak, ezaugarriak zehaztuta. Kontratuaren esku jarritako ekipo informatikoak eta zerbitzua emateko beharrezkoak diren programa-lizentziak barne (neurketa- eta aurrekontu-programa, lagundutako diseinu-programa...).
   - NBEak eta babes kolektiboko ekipoak.

## BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

- Mota guztietako tresnak, ekipo elektronikoak eta neurketakoak, etab. (Banaketa eta esleipen proposamena —komunak, pertsonalak...—).
- Ibilgailuak

## ESKAINTZA BAZTERTZEKO HUTSEGITE TEKNIKOAK

Derrigorrezkoa izango da jarraian jasotako alderdiak egiaztatzea, eta hala ez egiteak lizitatzailea prozeduratik kanpo uztea ekarriko du:

- Beharrezko dokumentazio teknikoa ez aurkeztea edo zuzen ez egiaztatzea.
- Proposatutako langileek ez izatea eskatutako titulazio akademikoa, profesionala eta esperientzia.

Proposamen teknikoak ez ditu berrogei (40) orrialde zenbakitu baino gehiago izango, eta ezaugarri hauek beteko ditu:

- Tamaina: DIN-A4.
- Letra-mota eta gutxieneko tamaina: ARIAL, 10 puntu.
- Gutxieneko lerroartea: 1,5 puntu.
- Gutxieneko goiko eta beheko marjinak: 2,5 cm.
- Gutxieneko ezkerreko eta eskuineko marjinak: 2 cm.

Gehieneko orrialde-kopurua zenbatzen denean, aurkibidea eta eranskinak 40 orrialdeen barnean zenbatuko dira. Azala eta kontrazala ez dira zenbatuko.

Berrogei orrialde baino gehiago aurkeztuko balira, balorazio teknikoan lehendabiziko berrogei orrialdeak baino ez dira kontuan izango.

Letra-mota eskatutakoa baino txikiagoa duen testu oro ez da kontuan hartuko.

## AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

**Eskaintza ekonomikoa.** Lizitatzaileak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da **I. eranskineko ereduari** jarraikiz. Eskainitako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa izan ezik.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

a) I. eranskinaren arabera (Prezio unitarioak) eskainitako prezio unitarioen zerrenda.
b) II. eranskinaren arabera (Neurketak eta aurrekontua) eskainitako kontratuaren neurketak eta aurrekontua.

**Automatikoki kuantifikatu daitezkeen irizpideak:**

a) Proiektua entregatzeko epea murriztea
b) BIM metodologiaren erabilera

## I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

## I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEA

1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa
2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik administrazio-baldintza berezien pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):
3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ
Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu

## J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

Kontratazio-mahaia

Presidentea:
Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Mahaikideak:
Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.
Xabier Orue Moro jauna.
Itziar Zarate Urrutia andrea.
Gerardo Latorre Pedret jauna.
Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:
Gerardo Latorre Pedret jauna.

## K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

**1.- Adjudikazio-irizpideak:**

Hauek dira baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak:

**AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU**

Irizpide horri dagokionez, gehienez 50 puntu lor daitezke

**a) BALORAZIO EKONOMIKOA ………………………………………………………..40 puntu**

Irizpide horri dagokionez, gehienez 40 puntu lor daitezke

Horretarako, ondorengo formula matematikoak erabiliko dira. Emaitza K1 koefizientearekin biderkatuko da eta honen berdina izango da:

$$K1 = 40/50$$

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax ..............................................................50 puntu
(Bmax + BM) / 2...............................................48 puntu
BM ...................................................................47 puntu
0,8 x BM ..........................................................46 puntu
0,6 x BM ..........................................................44 puntu
Lizitazio-aurrekontua .........................................0 puntu

**K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK**

Non:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.
- BM: Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzaile bakoitzaren baja-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza.

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuen banaketa.

Modu horretan, Bi bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honi dagokiona da:

Baldin eta $0 < Bi <= 0,6 \times BM$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BM < Bi <= 0,8 \times BM$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BM)}{0,2 \times BM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BM < Bi <= BM$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BM)}{0,2 \times BM}$$

Baldin eta $BM < Bi <= (BM + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BM)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

Baldin eta $(BM + Bmax) / 2 < Bi <= Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi – BM - Bmax)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

**b. KALITATE-IRIZPIDE AUTOMATIKOAK………………………………………………..10 puntu**

- Proiektua entregatzeko epea murriztea……………………………………..(5 puntu)
  - Aldez aurreko azterlanak. Ezarritako epea baino lehen entregatzen den proiektu eta aste bakoitzeko 0,5 puntu, baldintza tekniko berezien pleguan ezarritako hiru hilabeteei dagokionez (gehienez, 2 puntu)
  - Egikaritze-proiektua. Ezarritako epea baino lehen entregatzen den proiektu eta aste

**K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK**

bakoitzeko 0,5 puntu, baldintza tekniko berezien pleguan ezarritako sei hilabeteei dagokionez (gehienez, 3 puntu)

Epea murrizteko proposamenak ondorio lotesleak izango ditu administrazio-baldintzen pleguan ezarritako zigorrari dagokionez.

- BIM metodologiaren erabilera………………………………………………………… (5 puntu)

Bost puntu BIM metodologia erabiltzeagatik diseinu-, garapen- eta dokumentazio-fasean

**BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEAK 50 PUNTU**

Hauek izango dira eskaintzak baloratzeko eta horiei esleitutako puntuak banatzeko irizpideak:

a. **Egikaritzearen memoria teknikoa eta metodologia………………………………..30 puntu**

- Egingo diren lanen irismena. (10 puntu)
- Egin beharreko lanak egiteko proposatutako programazioa (15 puntu)
- Kontrol-sistemak (5 puntu)

**b. Kontraturako jarritako bitarteko teknikoak…………………………..20 puntu**

- Kontratua egikaritzeko antolamendu-egitura eta lantaldea (15 puntu)
- Lanak egikaritzeko esleitutako bitarteko materialak (5 puntu)

**2.- Berdinketak hausteko irizpideak:**

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:

a) Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizarteratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.

b) Enpresako langileen artean aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duena.

c) Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.

d) Zozketa egingo da, aurreko irizpideekin berdinketa hautsi ez bada.

**3.- Ohi baino baxuagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:**

Eskaintza bat ohi baino baxuagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzaile bakarra dagoenean eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino 25 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Bi lizitatzaile daudenean, beste eskaintzaren aldean 20 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Hiru lizitatzaile daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoak direnean. Hala eta guztiz ere, batezbestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batezbestekoa baino 10 ehuneko-puntu handiagoa bada eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurriz kanpokotzat joko da aldea 25 ehuneko-puntu baino handiagoa bada.
- Lau lizitatzaile edo gehiago daudenean aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoa direnean. Dena den, horien artean batez bestekoa 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan gainditzen duten eskaintzak badaude, batezbestekoa kalkulatuko da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarra izango da ausarkeria-atalase berria ezartzea eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatuko da.

Talde bereko enpresen eskaintzak aurkezten badira, baxuegiak izateagatik susmagarriak diren eskaintzak identifikatzeko araubidean, bakar-bakarrik hartuko da kontuan eskaintzarik baxuena,

| K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK |
| --- |
| eskaintza banaka edo taldekoak ez diren, baina aldi baterako elkarte gisa jarduten duten beste enpresa edo enpresekin batera aurkeztea gorabehera. |

| L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK |
| --- |
| Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak. |

| M.- ZIGOR ESPEZIFIKOAK |
| --- |
| Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.<br><br>• Kontratistak kontratua gauzatzeko finkatutako epe osoaren barruan bete behar du kontratua, bai eta kontratua gauzatzeko behar diren mugarri partzialak ere. Mugarri horiek baldintza tekniko berezien pleguaren 4.4. apartatuan definituta daude.<br><br>• Mugarri partzialen bat betetzen ez bada, ehun euroko zigorra aplikatuko da aurreikusitako datarekiko atzerapen-egun bakoitzeko eta proiektu eta mugarri bakoitzeko.<br><br>• Zigor guztiak banakakoak, ez baztertzaileak eta metagarriak izango dira.<br><br>• Zigorrak metatzeak kontratua deuseztatzea ekar dezake, SPKLn aurreikusitako baldintzen arabera. |

| N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA |
| --- |
| Arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela egiaztatzen duen ziurtagiria. |

| Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA |
| --- |
| Ez da aplikatu behar. |

| O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA |
| --- |
| ☒Hasierako ekarpenaren betebeharra<br>☐Azpikontratazioaren mugak |

| P.- SUBROGAZIOA |
| --- |
| Ez |

| Q.- ERREKURTSO BEREZIA |
| --- |
| ☒ BAI<br>☐ EZ |

| KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK |
| --- |
| **KONTRATISTAREN ORDEZKARIA** |
| Kontratista adjudikaziodunak ordezkari bat atxikiko dio kontratuari; hura kontratistaren plantillan sartuta egongo da eta kontratu-zuzendaritzarekiko solaskidea eta lanen arduradun nagusia izango da. |
| **INSTALAZIOAK BISITATZEA** |

BBUPren webguneko kontratatzailearen profilean, instalazioak bisitatzeko deialdi bat argitaratuko da. Eskaintzak aurkeztu nahi dituzten lizitatzaileak joan ahalko dira, eta lizitatzaileek izan ditzaketen galderei erantzungo zaie.

## ASEGURUAK

Kontratuaren xede diren lanak gauzatzean, adjudikazioduna sortzen diren kalteen erantzule bakarra, eta bere kabuz eta arriskupean konpondu beharko ditu.

Adjudikaziodunek aseguru-poliza bat eratu beharko dute, baldintza teknikoen plegu honen xede den Kontratua garatzen den bitartean pertsona, eraikin, instalazio edota ibilgailuetan (BBUPkoak edo hirugarrenenak) izandako kalteak estaltzeko.